

-NEREA BEDIAUNETA

Ondarroako Jabekuntza Eskolaren ikasturte berria urrian hasi da martxan, Etxelilan. Aurten, gainera, parte hartze guneak zabalduko dira estreinako. «Ondarroako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolak ez du eskola hutsa izan nahi, horregatik parte hartzea sustatzeko guneak zabalduko ditugu», azaldu du Bisit Beiro Berdintasun arloko zinegotziak.

Parte hartzea bultzatzeko asmoagaz, gainera, hainbat ekimen egingo dira datozen hilabeteotan. Alde batetik, *aringain-gan Lilatoire* izenekoa egingo da. Ainhoa Azurmendi kirol aholkulari eta berdintasun arloan adituaren hitzaldiarekin ireki zen gunea herenegun, eta horren ostean, parte hartze gune ireki bat sortu zen aringa-aringa egiteko. Talde horretan edozeinek parte hartu ahal izango du, Arantza Burgoa dinamizatzaile ondarrutarraren eskutik. Hurrengo hitzordua martitzenean izango da, 19:00etan, Etxelilan.

Neska gazteen txokoa

Bestalde, literaturaren inguruan hausnartzeko tartea ere egongo da Etxelilan. Horretarako, literatura, irakurketa eta ikuspegi kritikoa ikuspegi feministatik lantzeko interesa duen guztiak hileko azken barikuetan izango du aukera. Lehenengo saioa azaroaren 12an izango da, 10:00etan.

Azkenik, neska gazteak batzeko txokoa ere irekiko da ikastur-



Emakume talde bat, Ondarroako Etxelilan batuta. NEREA BEDIAUNETA ALKORTA

Parte hartzea sustatzeko guneak edukiko ditu Jabekuntza Eskolak

Feminismoa lantzen jarraitzeko hainbat arlo landuko dituzten ikastaroak egingo dira Jabekuntza Eskolan, urritik ekainera bitartean • Ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

te berrian. Txoko berri horren egutegia oraindik zehazteko badago ere, zalantza eta kezkek partekatze gunea izango da, eta feminismoaz hazteko irrikaz dagoen guztiari zuzendutako txokoa izango dela aurreratu dute udal iturriek.

Urritik hasi eta ekainera bitartean, bestalde, hainbat ikastaro emango dira Ondarroako Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan. Ikastaroen arduradunek nabarmendu dutenez, aurten ere hainbat arlo landu eta beste hainbat esparru ukituko

dituzten ikastaro sorta eskainiko dira.

Feminismoa lantzen jarraitzeko, besteak beste, ekonomia feminista, sorkurtza artistikoa, sexualitatea eta zahartzarua landuko dira beste hainbat gairen artean. «Ikastaroen artean sor-

kuntza artistikoaren tailerren berezitasun gisa baldosa hidraulikoak egiten ikasiko dute bertan parte hartzen dutenek, ostean horrekin herrian mural bat osatzeko».

Haurtzaindegi zerbitzua

Ikastaroer dagokionez, hiru hila-beteko ikastaro bakoitzaren prezioa 5 eta 10 euro artekoa da. Oinarrizko errenta jasotzen dutenek eta 20 urtetik beherako andra gazteek, ostera, %50eko deskontua izango dute.

Izena emateko matrikula fitxa bete eta ordainketa egin behar da. Goizetan, Udal Diru Bilketa bulegoan (Kantoipe 3an) egiteko aukera egongo da, eta arratsaldeetan, Etxelilan (Artibai 3, 2. pisua). Informazio gehiago nahi izanez gero Etxelira jo edota Ondarroako Udalaren Berdintasun Sailean eska daiteke.

Talde bakoitzeko, gutxienez, zazpi lagun egon behar dute, eta taldea bete ahala itxi egingo da matrikulazioa; bestela, ikastaroa hasi arte egin daiteke matrikula.

Aurten ere, Txirimoraskik kudeatu duen haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da ikastaro guztietan. Antolatzaileek nabarmendu dutenez, zerbitzu hori behar dutenek astebete aurretik jakinarazi beharko dute.

@ Egitarau osoa eta informazio gehiago: www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus

Etxaburuk 'Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak' lana aurkeztu du

-N.B.A.

Mikel Etxaburu idazle ondarrutarrak *Lo zaudela zabaldu dizkizut begiak* (Erein, 2016) bere hirugarren olerki liburua aurkeztu zuen atzo, Donostiako udal liburutegiko sotoan.

Argitalpena, hain zuzen ere, Erein argitaletxeak eta Bilboko Udalak elkarlanean kaleratu dute. Idazle ondarrutarrak iaz Blas de Otero-Bilbo Uria nazioarteko VIII. Poesia Lehiaketako sari nagusia lortu zuen euskal lanen kategorian, eta saritutako lana da orain kaleratutakoa.

Olerki sorta sariketara aurkeztu zen antzera argitaratu bada ere, aldaketarik nabarmenena titulua izan da. Sortak, berez,

beste izen bat zuen, *Hirian zainetan*, baina Etxaburuk hasierako titulua aldatzea eskatu duela azpimarratu du. «Olerki sorta sariketara aurkeztu nuenean, ez nuen uste saria irabaziko nuenik, eta hortaz, ez nuen titulua gehiegirik pentsatu. Lana argitaratu egingo zela jakin nuenean, ostera, zer hobetu bazegoela iruditu zitzaidan, eta argitaletxeari hori aldatzeko proposamena egin nion, eta onartu egin zidaten».

Egunerokotasuna

Poema sortari dagokionez, «bere egunerokotasuna» kontuan hartuta idatzi duela aurreratu du Etxaburuk. «Egunerokotasunak

gutziz baldintzatua dago lana, eta zehazki, Bilbon dago kokatuta. Batez ere, Bilboko auzo zehatz batzuk dira bertan agertzen direnak: San Francisco, Bilbo Zaharra, Cortes... horko egunerokotasuna gogora ekarri eta beste batzuen azalean kokatu nahi izan dut. Poesia gauzen edo gertakari sekretuen taupada da. Poemak sentitze horretatik eginak daude, egoera, pertsonen edo gauzen taupada sekretu horiek ulertu nahian».

Era berean, poema liburuagaz irakurleak ariketa bat egitera bultzatu nahi izan du ondarrutarrak. «Irakurleak begiratzetik ikustera pasaraztera gonbidatu nahi izan ditut. Hau da, albokoa-



Mikel Etxaburu bere azken lana eskuetan, atzo, Donostian. EREIN

ren, bestearen edo lagun urkoaren azalean ipintzea nahi izan ditut. Askotan errezagoa da norberak norberanari eutsi, eta ingurukoekin jabetu ordez beste albora begira bizitzea, eta lan honen ingurune hurbilean gertatzen diren gauza horien in-

guruan kontzientzia hartzerag gonbidatu ditut irakurleak».

@ Aurkezpeneko bideoa, ikusgarri: www.lea-artibaietamutriku.hitza.eus